

## Ez daude hemen

**E**szenak film bat mereziko luke, edo telesail oso bat (edo, Baztanen gertatu izan balitz, eleberrien trilogia beltz bat), edo Ainhoa Artetak berak rol nagusia joko lukeen opera atonal bat, baina ahaztuta geldituko da, bere baitan gordetzen dituen implikazio etsigarri guztiek, oro har, horrela-koei ez diegulako kasu ematen.



**JIRA**  
Angel Erro

Hemendik urrun editatzen duten egunkari bateko gizarte kronikan eman dute bi euskal emakume ospetsuren arteko liskararen berri. Euskal Herriko sopranozik entzute-tsuen, bata; Legebiltzarreko mahaiburua ohia eta

bere alderdiaren EAEko sukurtsalaren presidentea, bestea. Biak arrakastatsu, biak lirain, biak horail-tindatuak. Europako gizonik aberatsenaren alabaren urtebetetze festan gertatu da, beste gonbidatuen atsekaberako.

Goiburua irakurri eta irudikatu dut gaurkotan politikoko gai bategatik berotuko zirela -euskaldunok beti nabarmentzerian gure kala-kekin, baita Euskal Herriatik kanpo ere-, baina ez da hala izan. Emakume handion atzean dauden enpresa gizonen auziak izan dira sesioaren zioa, Barçako presidenteorde eta Itziar Urdangarinen negozioren babeslea izandakoaren kontura, bien senarrak harentzat lan egindakoak baitira.

Badira beste Euskal Herri batzuk eta ez daude hemen.

## Bigarren maila

**E**spainian eta haren menpeko lurretan politikari buruzko eztabaida familia bazkari, lantokiko hamaiketako, lagunarteko trago eta gazietxoan ikamiketara itzularazi duen Pablo Iglesias esku hartu nahi izan dute zentralitate kanonikoa ordezkatzeko duen egunkariko bi kazetarik.

Elkarrizketa hasieratik sumatzen da Podemosi eta, bereziki, Iglesias egotzen zaizkien ahulguneak nabarmentzeko gogo dabiltzala: populismoa, liderraren rockstar izaera, gai fuintzeko eta korparalatuenerako lauso jardutea...



**BIRA**  
Idurre Eskisabel

Horrenbestez, laster etorri da Espainiaren batasunari buruzko galdera, edo, beste era batera esanda, zer den zehazki Kataluniarako proposatzen dutena. Eta hara, kazetari aurreiritziaren galdera zepo zaio non-bait Iglesiasi: orokortasuna baliatuz ihes egin nahi izan du, Espainia plurinazionala dela aldarrikatuz -formula arriskutsua, nolana, erabileraz zuri, gaizto eta sarriaren ondorioz espaside hutsal, iruzurti eta eduki gabea bihurtu baita demokraziaren abiaburu beharko lukeen aitor-tza-. Zehazteko gehiago, ordea, temati kazetari-ek. Eta Iglesias, atzera, itzurika (ustez): «Niri axola didana da denontzako osasun publiko bat egotea. Katalanez, euskaraz, galizieraz edo gaztelerez atentidatze bigarren mailako kontua da niretzat».

Ez zuen askorik esan nahi, eta guztia esan du.

## Iritzia

# Txillardegia: ezkerreko abertzalea

### Pako Sudupe Idazlea

**T**xillardegiren alderdi politikoa behar bezala azpimarratu al da? Intelektual engaiatua eta guztiaren gaitetik: abertzalea. Euskal Herria ez da Euskal Herri, baldin eta euskalduna ez bada; beraz, gerra -1512, 1789, 1833, 1872, 1936-, administrazio, irakaskuntza, eliza, eta ekonomia, eta hedabideen bitartez bere hizkuntza propioa gal, zabar, ordezkari dioten herri hau, lehenbizi, berreuskaldundu beharra dago, nahitaez, baina hori Euskadi -edo Nafarroa, hots, euskal estatu aske gisa ulerturik- askatu gabe guztiz ezinezko.

Sei hamarkadatan barrena (1950-2010), bere ikuspegi estrategikoa oso garbi adierazi du, unean-unean politikari abertzaleen artean eta hurbileko munduan boladan zer zegoen errespetaturik, baina desados egoteko askatasuna baliatuz, eta hortik, itxura batera, politikan zabuka ibili den irudipena.

50eko hamarkadan garbi ikusi zuen errepublikano espainiarrekiko leiala eta Franco hil zain geldi egonik, gure herriak jai zuela, hiltzen ari zela, eta neokarlismoak bazter utzirik, geure indar soiletan fidaturik hasi behar genuela estrategia eta praktika burutzen. Horregatik, EAJrekiko loturak haustea, eta Ekin-etik ETARA igarotzea.

60ko hamarkada erbestearen hasi zuen. 1961ean, Parisen, erbesteko Jaurilaritzaren egoitzan, Euzko Gaztedik eta ETAk osatu behar zuten fronte abertzaleari buruz mintzatu zen. Hamarkada hartan finkatu zituen irmo bere ideologiaren oinarriak. V. Biltzarra baino lehen, 1965-1966etan, asko idatzi zuen politikaz, barne korronte-ek, eta fronte abertzalez. Delako fronte horrek programa politikoko gutxieneko bat izan behar zuen: autonomia zabalagoa, baina lurraldeentzat eta beste horrenbeste Iparraldeko hirurentzat, eta orduko lehentasuna ez zen fronte gerrillero utopiko bat eratzea. 1966ko uztailaren erakundeko zuzendaritzako hiru kideekin elkartzurik, V. Biltzarreko bi korronteko erakundeak eratzea proposatu zien: bata marxista-leninista, eta bestea sozialista autogestionarioa. Biltzarrean ez zen onartu proposamena, eta Benito del

Valle, Manu Agirre eta Xabier Imaze-kin batera atera egin zen erakundetik.

70eko hamarkadaren hasieran, T. Monzonekin batean saiatu zen fronte abertzalea gauzatzeko. Fronte horretan eskuinak egon behar zuen -EAJ-, eta ezkerrek ere bai: sozialista-komunista-anarkista abertzaleek, baina PSOE eta PCE eta gainerako espainoliek ez; axolazkoena, lehenbizi, aberria askatzea zelako; aberria askatu ondotik, orduan sozialismoa.

Franco hiltzean, erbestetik itzuli, klandestinitatetik atera eta politika posibilista, autonomista -Nafarroa bizkarrezur zela, Nafarroa da Euskadi!- egin behar zela iritzirik, ESBren sorreran esku hartu zuen. 1978ko ekainaren 17an, ESBko batzorde nazionalak, hiru sortzaile egotzi zituen: Mikel Garmendia, Sabin Irizar eta Txillardegia. Egoztiek *Enbata* aldizkarian agertu zituzten zuzendaritzarekin liskartzera eraman zituzten lau arrazoiak: 1. Fronte nazionala baztertu izana; 2. Euskaren alderdi eskakizunak alderdi barruan bazter utzi izana; 3. Eusko gudarrien aurka aritu izana; eta alderdi barruko autogestioa urratu izana. Herri Batasunera igaro zen, independente gisa.

80ko hamarkadaren hasieratik behin baino gehiagotan salatu zuen sarriki eta suminki EAJren saldukeria. Saldukeria klase-interesei egotzen zien. 1983an zioen Euskal Herriak Espainia eta Frantziarekin duen gatazkaren aterabidea autodeterminazioaren eskubidea erabiltzea zela. Eta Kautskio sozialistaren hitzak bere eginez: «Ez dago burujabetzarik nazio-hizkuntzarik gabe. Euskadi ez da Askatua inoiz izango, Euskalduna ez bada».

SESBen desegitea gertatu zelarik, 1992an, berriro *Enbatatik* zioen unea autodeterminazioa eta independentziarena zela: «*Le programme doit être Euskadi askatua, sans plus. Il faut re-*

*jeter tout préalable et tout addenda*». Hori bai, autodeterminazioa eta independentzia emantzipazio gisa ulertua. Programa berriak jende berria galdegiten zuen: «*Ceci veut dire d'une façon plus précise que les personnes qui se sont mouillées au long des dernières années sur des lignes d'action aujourd'hui dépassées doivent quitter le devant de la scène politique. C'est une condition de crédibilité politique*». Bestela, euskal politika jasaten ari zen impasse egoera ezin gaitzuta zela.

Bizia Euskal Herriaren alde emateko prest ziren gudariak beldur eta goretzi zituen, baina haien hainbat ekintza ez zituen ulertzen. Blanco hil zutenean: *Qui prodest?* galdetzen zuen: «Azkeneko asteotan ezagutu dugun goranzko eupada mirengarriak, zokoratutik zeuzkan, beldurturik, ezindurik, zer egin ez zekitela, errejonalista kolaboratzaileak eta espainolista oro. Hots, mementu horretan txeta sendoa brauki moztu da, erabat eten; errejonalistak eta espainolista berriro harrotu. [...] Nork irabazi du? Berek ala guk? [...] Etsaiak ez du ELA-LAB elkarretak inolaz ere irautea nahi. [...] Nor dago pozik gaur? Gu abertzaleak, ala berak? Irakurleak erantzun beza».

2002an, «Meniatik Auto-Determinazioa» zioen. Hemen Madril-ek agintzen zuen, eta Lakuak eta «Pamplonak» obeditzen: «Honetarako bali izan du joan den maiatzeko garapen elektoralek? Horretarako behar genuen Jaurilaritza abertzalea, PNV eta EA alderdi abertzaleek gidatua? Gehiengo omen dugularik hori baldin bada dena, 163 urte galdu ditugu. Eta 'Viva Espartero' oihukatzea aski genuen! [...] Nork sabotatu zuen Lizarra-Garazi abiapuntua? Abertzaleok ala Aznarrek? Noren mesedetan gertatu da etendura hura? Otoi, aberkideok. Irek begiak! [...] Zernahiren gaitetik, abertzaleon arteko batasuna behar dugu. Gaur, meniatik Auto-Determinazioa».

Gerokoa ezaguna da irakurlearen-tzat. Aralarren, 2007ra arte. 2008an, EAE-ANVren zerrendetan. 60 urte abertzale borrokan. Euskalgintza-aberrigintzara guztiz emaniko urteak. Utzi digun altxorra jakingo ahal dugu poxio bat baliatzen, beraren abertzale erudetik legoatara geldituagatik. Goian bego, baina bere lana gure begien aurrean, eta bala dezagula!

**Bere ikuspegi oso garbi adierazi du, unean-unean politikari abertzaleen artean eta hurbileko munduan boladan zer zegoen errespetaturik, baina desados egoteko askatasuna baliatuz**